

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Helburutzat auzo-bizitza, gizartea eta ingurumena sustatzea duten elkarteei Lakuako hiri-baratzeak erabiltzeko baimena emateko deialdi publikoa

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen helburua da Gasteizko Udalak Lakuako hiri-baratzeak erabiltzen uzteko baime-nak arautzea, xedetzat auzo-bizitza, gizartea eta ingurumena sustatzea duten eta Euskal Autono-mia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean izena emanda dauden elkarteek edo elkarten federazioek, konfederazioek edo batasunek Lakuako hiri-baratzeetan proiektu bat garatzerik izan dezaten, Gasteizko herritarrentzako interes publikoko jarduera izan daitekeen neurrian.

2. Helburuak

- Lakuako hiri-baratzeak garatzen, mantentzen eta finkatzen laguntzea.
- Gasteiztarren artean baratzezaintza ekologikoa sustatzea, elikagai osasuntsuen iturri, aisialdi aktiborako aukera eta nekazaritza eta nekazaritza-bizimodua ezagutzeko modutzat har dezaten.
- Zabalgana auzoan auzotarrak elkartzeko eta garapen komunitariorako espazio bat sortzea, elkarlana, auzolanaren filosofia, pertsonen arteko harremanak eta auzokoen kohesio soziala sustatzeko.

Elkarteek edo elkarte-taldeek berezko dituzten nekazaritza eta gizarte arloko jarduereta-rako erabiliko dute espazioa, indarreko legeriak eta baimentzeko ebazpenak zein Gasteizko hiri-baratzeen erabilera arautzeko udal ordenantzan ezarritako muga barruan.

3. Erabilera-printzipio orokorrak

Lakuako hiri-baratzak kudeatzen dituztenek honako erabilera-printzipio orokor hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- Bizikidetza-printzipioa: Lakuako baratzeak gainerako herritarrei ere irekita dauden au-zo-ekipamendu gisa hartu behar dira, ez baratzeako jarduera egiten duten pertsonentzako es-pazio gisa soilik, baita komunitate-jarduera bat garatzeko baliatzen diren ekipamendutzat ere.
- Baratzeak onik zaintzeko eta mantentzearen printzipioa: laga zaien lursaila onik zaintzea eta mantentzea erabiltzaileen egitekoa izango da batez ere, eta hori erabiltzean prestutasun han-diz jokatu beharko dute lurraren osasungarritasuna, garbitasuna eta laborantza mantentzeko.
- Instalazioak erabiltzean aplikatu beharreko errespetu-printzipioa: baratzeak erabiltzen dituen pertsona orok gainerakoei enbarazu egin edo kalteak eragitea ekidin beharko du.
- Ez merkaturatzearen printzipioa: Baratzeen erabiltzeak debekatuta izango dute gune ho-rietako laboreak helburu komertzialetarako erabiltzea edo lurra ekonomikoki ustiatzea.
- Autohornikuntza-printzipioa: baratzeak lantzearen ondorioz sortutako fruituak norberaren kontsumorako soilik izango dira eta ezingo dira etekin ekonomikoak lortzeko erabili.

— Ingurumen prebentzioaren printzipioa: baratzeen erabiltzaileek ez dute lurrari kalte larriak eragin diezazkieten produktu ongarririk edo fitosanitariorik erabiliko; hau da, ez dute lurra edo bertan egon daitezkeen akuiferoak kutsatuko dituen produkturik erabiliko, Gasteizko Hiri Baratzeen Erabilera Arautzeko Udal Ordenantzan ezarritakoari jarraituz. Plastikopeko landaketak mugatu egingo dira horiek ugaritzea eta material horrek sortutako kutsadura ekiditeko eta paisaia-intrusioa saihesteko. Ez dira hondakinak (egurrezko markoak, metalezko egiturak, etab.) ez eta potentzialki toxikoak eta arriskutsuak diren edo paisaia-intrusioa eragin dezaketen materialak erabiliko.

4. Ezin dute deialdi honetan parte hartu

— Gasteizko herritarren arteko auzo-bizitza, gizartea edo ingurumena sustatzea helburu ez duten elkarteak.

— Irabazi-asmoa duten herritar erakundeak.

— Xede profesionalak dituzten herritar erakundeak.

5. Betekizunak

Betekizun hauek bete beharko dituzte espazio horiek erabiltzeko interesa duten elkarte eta elkarte-taldeak:

— Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean izena emanda egotea, eta datuak eguneratuta edukitzea, araudiarekin bat etorriz.

— Gasteizko udalerria izatea haien jardun-eremua.

— Estatutuen arabera, auzo-bizitzaren, gizartearen edo ingurumenaren alorrekin lotutako helburu eta jarduerak izatea.

6. Betebeharrak

Lakuako hiri-baratzeen espazioa erabiltzeko baimena lortzen duen elkarteak edo elkarte-taldeak onartu eta bete egin behar ditu Gasteizko Hiri Baratzeen Erabilera Arautzeko Udal Ordenantzaren baitan erabilera, debeku eta bestelakoei buruz jasotako arauak.

Era berean, egoerari buruzko urteko txostena aurkeztu beharko du, gutxi gorabehera eduki honekin:

— Egindako gizarte-dinamizazioko jardueren zerrenda, datu hauek adierazten direlarik: data, parte-hartzaileen kopurua, jardueren irismen geografikoa (bazkideak, auzokoak, hiri osokoak).

— Baratzekeo jardueraren datuak: okupatutako lursailak, parte hartzen duten pertsona eta taldeen kopurua eta profila.

— Urteko balantze ekonomikoa.

— Talde eragilearen proiektuaren balorazioa: erronkak eta zailtasunak, lorpenak eta aurre-
rapenak.

— Hurrengo urterako helburuak.

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak (IGI) deituko duen aurrez aurreko bileran aurkeztu beharko du txosten hori elkarte onuradunak.

Orobat, IGIarekin etengabe harremanetan egoteko bide bat ezarri beharko du, eta hark eskakizunik eginez gero azkar erantzungo duen erreferentzia-pertsona bat izendatu.

Erabilpen-baimenak xede duen gunea baratzezaintza ekologikoarekin eta elkarte onuradunak programatutako gainerako jarduerekin loturiko jardueretarako soil-soilik erabiliko da, eta jarduera horiek auzotarrak elkartzeko eta komunitate-garapena bultzatzeko xedea izan beharko dute.

7. Ikuskapena eta kontrola

IGIk izendatzen dituen teknikariek egingo dituzte ikuskapen eta kontrol lanak; hain zuzen ere, Gasteizko Hiri Baratzeen Erabilera Arautzeko Udal ordenantzan arautzen diren gaien inguruko zaintza, ikuskapen eta kontrol jarduerak burutu ahal izango dituzte.

8. Eskabideak eta dokumentazioa

Espazioak erabiltzen uzteko baimen-eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabide-orria (l. eranskina).

b) Elkarteari edo elkarte-taldeari buruzko dokumentazioa:

— Elkartearen erregistro-zenbakia, estatutuak edo funtzionamendu-arauak eta eratze-urtea.

— Elkartearen legezko ordezkariaren zinpeko aitortpena, Bazkideen Erregistro Liburuan zenbat kide ageri diren adierazten duena; liburu horrek Euskadiko Bazkuneen buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorraren Erregelamenduan —uztailaren 29ko 145/2008 Dekretuak onetsia— ezarritako arauak jarraituz osatuta egon beharko du.

Gasteizko Udalak eta IGIk edozein unetan eskatu ahalko dute bazkideen erregistro-liburua, eskabidea zuzen balioesteko behar dituzten datuak egiaztatzeko.

c) Espazioa erabiltzea baimentzen den aldian Lakuako hiri-baratzeetan garatu nahi den proiektuaren oroitidazkia.

Oroitidazkiak proiektuaren diseinu globala erakutsi beharko du, modu erraz eta argian idatzita. Berariaz jaso beharko ditu proposamenak baloratzeko irizpideekin bat datozen alderdi hauek:

— Aurrekariak: entitate eskatzailearen interesaren justifikazioa, estatutuetako xedeen ildotik.

— Proiektuaren helburuak eta proiektuaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko proposatutako adierazleak.

— Proiektuaren gobernantza-eredua. Batzarra, talde eragilea, lan-batzordeak, auzolanak, ekintza komunitarioa eta abar.

— Ekipamenduan bai pertsona talde partikularrei bai kolektiboari baratze-lursailak lagatzeko baliatuko diren irizpideak, lagapen-deialdiari publizitatea emateko erabiliko den sistema adierazten delarik.

— Espazio komunak mantentzeko eta zerbitzu komunitarioak emateko antolamendua.

— Baratzeko jarduera-programa.

— Parte-hartzea sustatzeko eta bultzatzeko programa.

— Proiektua auzora irekitzeko programa.

— Proiektura bideratutako baliabideak.

— Proiektu ekonomikoa. Diru-sarreraren aurreikuspena: kuotak, dirulaguntzak eta abar. Inbertsioen eta gastu arruntaren aurreikuspena.

— Talde eragilean erantzukizuneko karguak berritzeko eta lursailen lagapena berritzeko estrategia, ahalik eta pertsona gehienek txandakatu eta erabil dezaten lursaila.

9. Erabilpen-baimena emateko irizpideak

Ondoren zehazten diren irizpideak aintzat harturik baloratuko dira baimen-eskabideak, hau da, adierazten diren baremoak aplikatuz, gehienez 100 puntu arte:

a) Kideen kopurua; gehienez 10 puntu:

Bazkide-kopurua:

— 1-10 bazkide: 1 puntu.

— 10-50 bazkide: 3 puntu.

— 50-100 bazkide: 5 puntu.

— 100 bazkidetik gora: 10 puntu.

Federazio, konfederazio edo elkarte-batasunen kasuan, horiek osatzen dituzten elkarte guztietako kideen batura hartuko da kontuan.

Gehienez 10 puntu.

b) Egin beharreko kudeaketa-proiektuaren oroitidazkia. Gehienez 90 puntu.

— Aurrekariak: entitate eskatzailearen interesaren justifikazioa, estatutuetakoa xedeen ildotik: 10 puntu.

— Proiektuaren helburuak eta proiektuaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko proposatutako adierazleak: 10 puntu.

— Proiektuaren gobernantza-eredua. Batzarra, talde eragilea, lan-batzordeak, auzolanak, ekintza komunitarioa eta abar: 10 puntu.

— Ekipamenduan bai pertsona talde partikularrei bai kolektiboari baratze-lursailak lagatzeko baliatuko diren irizpideak, lagapen-deialdiari publikitatea emateko erabiliko den sistema adierazten delarik: 10 puntu.

— Espazio komunak mantentzeko eta zerbitzu komunitarioak emateko antolamendua: 10 puntu.

— Baratzeko jarduera-programa: 5 puntu.

— Parte-hartzea sustatzeko eta bultzatzeko programa: 5 puntu.

— Proiektua Arriaga-Lakua auzora irekitzeko programa: 5 puntu.

— Proiektura bideratutako baliabideak: 5 puntu.

— Proiektu ekonomikoa. Diru-sarreraren aurreikuspena: kuotak, dirulaguntzak eta abar. Inbertsioen eta gastu arruntaren aurreikuspena: 10 puntu.

— Talde eragilean erantzukizuneko karguak berritzeko eta lursailen lagapena berritzeko estrategia, ahalik eta pertsona gehienek txandakatu eta erabil dezaten lursaila: 10 puntu.

10. Eskabideen tratamendua

Agiri guztien jatorrizkoa eta kopia bat aurkeztu beharko dira Gasteizko Udaleko Argibide eta Erregistro Bulegoan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25-behea, 01008, Gasteiz) edo gizarte etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoetako batean.

Eskaerarekin batera behar ziren agiri guztiak aurkeztu ez badira, edo agiri osagarriren bat behar bada, 15 eguneko epea emango zaio eskatzaileari okerrak zuzentzeko. Hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

11. Baimena ematea

Eskaerak balioespen batzorde batek aztertuko ditu, eta honakoek osatuko dute: IGiko zuzendariak, IGiko teknikari batek eta Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saileko teknikari batek. Balioespen-batzordeak Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari aurkeztuko dio proposamena eta horrek ebatziko du erabiltzeko baimenak nori eman, berak baitu horretarako eskumena, alkateak 2016ko maiatzaren 24an emandako dekretuaren ildotik.

12. Erabiltzeko baimena formalizatzea

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak Lakuako hiri-baratzeen erabilera baimentzeko ebaizpena emango du eta bertan adieraziko dira baimena eman izanak berekin dakartzan baldintzak, ordenantzan ezarritakoarekin bat etorritik.

13. Erabiltzeko baimenaren iraupena

Baimenak lau urte iraungo du; hala ere, baimena baliogabetzea izango da, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututakoari jarraituz.

Ez dago baimenaren iraupena luzatzerik.

14. Baimena iraungitzea

Kasu hauetan iraungiko da baimena:

a) Lakuako baratzeak baimenak xede zituen berariazko helburuetarako ez erabiltzea. Horrekin lotuta, Gasteizko Udalak eta IGiko Ikastegiak behar diren bisitak egin ahalko dituzte ingurura, bertako jarduera kudeaketa- eta jarduera-proiektuarekin bat datorren egiaztatzeko.

b) Elkarre edo elkarre talde onuradunak baimena emateko ebazpenean eta erabilera arautan ezarritako baldintzak ez betetzea.

c) Aurkeztutako proiektua ez betetzea, justifikaziorik gabe.

d) Elkarre onuraduna desagertzea.

e) Borondatez uko egitea.

f) Interes publikoa dela kausa alde bateko baliogabetze kasuetan, Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.4 artikuluan araututakoaren arabera.

g) Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 100. artikuluan jasotako gainerako kasuak.

15. Kanona

Irabazi asmorik gabeko jarduera izanik, ez da kanonik aurreikusten.

16. Tasak ordaintzea

Baimenaren onuradun den elkarre edo elkarre-taldeak ezingo du inolako tasarik kobratu lursailen erabileragatik, baina kuota bat ezarri ahalko du lursailen ustiapenak dakartzan gastuei aurre egiteko.

17. Pertsona, instalazio edo ondasunei kalteak eragitea

Baimenaren onuradun den elkarre edo elkarre-batasuna izango da erantzule baldin eta jardueraren kudeaketaren ondorioz pertsonen, lokalei, instalazioei edo ustiapenari lotutako ondasunei zuzenean edo zeharka kalterik egiten bazaie, edo jarduerak berak horrelakorik sortzen badu.

Horretarako, edukitzaileak (187.000 euroan baloratua) zein edukiak izan ditzaketen kalteak egoki estaltzeko aseguru kontratatu beharko du, baita ustiapenak dakarren erantzukizun zibilerako ere, berariaz sartuta daudelarik lekuari dagokion erantzukizun zibila —instalazioari egin dakizkion kalteengatik—, ugazabaren erantzukizun zibila, defentsa eta bermeak, istripu eta urte bakoitzeko muga 100.000 eurotik beherakoa ez dela.

Udalak aseguratu gehigarri gisa agertu beharko du polizan, hirugarrenaren izaera galdu gabe.

Jarduera hasi aurretik, eta hurrengo urteetan, izenpetutako aseguru-kontratuen polizaren kopia eta primak ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu elkarre onuradunak IGIn; aseguru egiteko betebeharra ez betetzea baimena suntsiarazteko arrazoa izango da.

Elkarre edo elkarre-batasun esleipendunak, halaber, bere gain hartuko du kalteengatik egiten diren erreklamazioei erantzuteko betebeharra, eta Udalari jakinaraziko dio horren azken emaitza, eskatuz gero.

18. Ordainarazpenak eta gastuak

Baimenaren onuradun den elkartearen edo elkarte-batasunaren erantzukizuna izango da jardueraren funtzionamenduak sortutako gastuak ordaintzea, hauek, besteak beste:

a) Ur-zerbitzua. IGIk egingo du hornitzailearekiko kontratua, eta elkarte onuradunak ordaindu beharko du kontsumoa.

b) Utzitako espazioa eta instalazioak onik zaindu, mantendu eta konpontzeko behar direnak, narriadura eguneroko erabilera arruntaren ondoriozkoa denean; egitura-elementuak mantentzeko kostuaz Udala arduratuko da.

c) Lekuaren garbiketa.

d) Baimena garatzeko eskatutako aseguruen primak.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko otsailaren 28an

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA

I. Eranskina

LAKUAKO UDAL BARATZEAK ERABILTZEKO BAIMENA

Izen-deiturak _____ NAN zk. _____
Helbidea _____ Telefonoa _____
Kargua _____
Elkartea _____
IFZ _____

ADIERAZTEN DU

Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak Lakuako hiri-baratzeak erabiltzen uzteko baimena emateko egin duen deialdiaren berri izan duela, eta bertan ageri diren oinarriak irakurri dituela. Eta hauxe,

ESKATZEN DU

Baratzeak erabiltzeko baimena eman diezaiotela ordezkatzeko duen entitateak aurkeztutako proiektua garatzeko; horretarako eskatutako agiriak aurkezten ditu eta benetakoak direla ziurtatzen du (X batez markatu dagokion lekuan):

- ☐ Elkarteari edo elkarte-multzoari buruzko dokumentazioa
☐ Garatu beharreko proiektuaren memoria
☐ Bestelakoak (zehaztu)

Vitoria-Gasteizen,

(eskatzailearen izenpea eta zigilua)

Dena delako prozedura edo jardueran aurreikusitako helburuetako bakarrik erabiliko dira interesdunak aurkeztutako datuak. Eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko beteko du. Datuak ematen dituen bere datuak irispiderako, zuzentzeko, ezereztzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideaz baliatu ahal izango da, delako 3/2018 Lege Organikoa xedatutakoaren ildotik eta arauz ezartzen den moduan.